



## Gazte prekaritatea Frustraziotik burujabetzara

# Kolpe guztien azpitik eta krisi guztien gaineratik

**I**ngelesa ikasi, ahal dela unibertsitatera joan, eta beharrezkoa bada, ondoren masterra egin. Hori izan da gazteoi ongizate pertsonal eta profesionala erdiesteko helarazi zaigun errezeta itxuraz akasgabea. Ikasketak amaitu bezain pronto ordea, errealitatearen gordinarekin egin dugu topo: lan aukera urriak, baldintza kaskarrak, emantzipatu edo bizi proiektu bat martxan jartzeko ezintasuna... Bildu ditugun datuei erreparatu besterik ez dago. Baina krisiak ongizate estatuaren ilusioa nola, gazteon frustrazioak bizitza eta lanbide eredu hegemonikoa ere zalantzan jarri ditu. Saihestu ezineko erronka da eskuartean duguna. Nola eraiki helburu eta bide berriak? Nola izan gure bizibidea sortzeko burujabe, beste inoren zain egon gabe? Nondik hasi?

Krisi ekonomikoa esaten dioguna lehertu zene-  
tik, adin-tarte guztietako pertsonak jasan dute  
prekarietatea eta pobrezia orokortzea. Baina,  
ohi bezala, zapalduenari eta gutxien duenari are  
gehiago eragin dio: etorkinari, adineko emaku-  
meari... Eta baita, senideen babesetik landa,  
baliabide ekonomiko eta jabetzarik ia ez duen  
gazteriar ere. Jakina da prekarietatea ez dela soi-  
lik langabezia tasa, diru-sarrera eta datu makro-  
ekonomikoetan neurtzen; zerikusia du, ezegon-

kortasuna eta beldurrarekin ere. Baina datuak  
badira analisi orokor bat egiteko abiapuntu zeha-  
tzena.

Gaindegiak Euskal Herria bere osotasunean  
aintzat hartzen duten datuak emateko egiten  
duen ahaleginaz baliatuta eta Ernaik pasa den  
urtean kaleratutako “Gazteria, lana eta prekarie-  
tatea” txostena lagun, hori izan dugu asmoa:  
Euskal Herriko gazte belaunaldiaren argazki bat

■ **Egileak:** Lander Arretxea / Itsaso Zubiria  
**Argazkiak:** Dani Blanco

---

**Azala:** Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Gorka Bereziartua, Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.463. zenbakiarekin banatua, 2015eko maiatzaren 31n).



LEIRE CANO


### **Mugi Hadi! eta Gazte Ekintzaile elkarteek antolatutako 'Lan bila? Mugi hadi gazte' jardunaldietan.**

egitea. Gerturatu eta neurria jartzea zenbakien bidez irudikatzen zaila den gazteon prekaritate eta ezegonkortasun horri.


Soldatapeko lan falta edo langabezia-tasa ez da prekaritatearen adierazle behin-betikoa, besteak beste, ez baititu lana bai baina enplegua ez diren jarduera ekonomikoak aintzat hartzen. Sol-

datapeko lana lortu nahi eta ezin duten gazte kopuruaren berri ematen du hala ere. Lehenengo grafikoan ikus daitekeenez Euskal Herrian, azken datuaren arabera lan-gabezia tasa orokorraren (%16,4) oso gainerik dago gazteena: %43,3 15-24 urte artekoetan, eta %20 25 eta 34 urte bitartekoen artean. 2008tik 2013ra bederen, goranzko joera etengabea izan da.

### Langabezia-tasaren bilakaera, adinaren arabera. Euskal Herria, 2008/2013



### Enplegu tasak, adinaren arabera. Euskal Herria mugaren bi aldeetan, 2014




Are adierazkorragoa da enplegu-tasari dagokion bigarren grafikoa. Gazte guztien artean soldatapeko lanean ari diren gazteak zenbat diren erakusten du: 20-24 urte bitarteko gazteen artean, 3tik batek soilik du enpleguren bat. 25-34 artean aldiz, gehiengoak lan ordaindua du, %72k, hain zuzen. Nabarmena da Iparraldean enplegu-tasa askoz altuagoa dela: 20-24 adin-tartean, kasu, hegoaldekoaren bikoitza da.

Datuok ulertzeko ezin ahaztu liteke enplegu eta langabezia-tasek ez diotela lan baldintzei erreparatzen: berdintzat jotzen dituztela 5 orduko aldi-baterako kontratua duen tabernaria eta soldata paregabea duen kontratu mugagabeko bankaria. Beste aukerarik izan ez dutelako, edo lan aukera hobeen bila kanpora joan direnak ere ez dira aintzat hartzen. Eta ez dira gutxi. Beste parametro batzuetan arreta jartzea ezinbestekoa da beraz:


### Hego Euskal Herriko gazteen batez besteko diru sarrerak hileko, 2014

■ 300€ <   ■ 301-600€   ■ 601-1.200€   ■ 1.201€ >



### Hego Euskal Herriko gazteen lan kontratuen batez besteko iraupena, 2014

■ Urtebete edo gutxiago   ■ Urtebete - 3 urte   ■ 3 urte baino gehiago



Iturria: Ernai

Gaindegiak *Euskal Herriko gazteen ibesa* txostenean bildutako datuen arabera, 2008. eta 2012. urteen artean Hegoaldeko 90.000 bat gaztek egin dute alde. 2012koa da kopuru altuena: 22.399 gazte joan dira kanpora. Iparraldean ere gertatzen da halakorik, nahiz eta krisi ekonomikoaren aurretik datorren joera izan. Zuberotan esaterako, 1999tik hona, 21-30 urte bitarteko lau gaztetik batek alde egin du (%26,9).

Prekaritatea ezegonkortasunarekin ere lotzen denez gero, badira kontuan hartu beharreko beste bi datu: lan-kontratuen batez besteko iraupena eta diru sarrerak. Iparraldeko datuak eskuratzeko ezinezko izan zaigu, eta Hego Euskal Herriko datuetan jarri dugu lupa. Bertan, enple-

gua duten gazteen heren batek soilik du gutxienez hiru urteko iraupena duen kontratua. Beste heren batek, urtebete eta hiru urte arteko luzerakoa du, eta beste heren batek, ez daki urtebeteko epean lan berean jarraitzerik izango ote duen. Diru-sarrerari dagokionez, gazteen %56ak 300 euro baino gutxiago irabazten du hilean, eta soilik %8ak gaintzen du 1.200 euroen langa.

Hainbat kasutan, emantzipatu eta etxebizitza baten alokairua ordaintzea ezinezkoa da enplegua dutenentzat ere... CJEren (Espainiako Gazteriaren Kontseilua) 2014ko datuen arabera, Hego Euskal Herrian 16-29 urte bitarteko gazteen artean emantzipazio tasa %22,2koa zen. ■

# Ametsa gaur hasten da

Gazteen egoera sozial eta ekonomikoari erreparatzeko adineko soziologo, irakasle eta ikerlariengana jo ohi dugu. Haien ekarpenei baliorik kendu gabe, galdera berberei erantzuteko beste modu bat nahi izan dugu bilatu: hogeita hamar urteak gainditu ez dituzten lau gazte bildu ditugu, horren ongi eta gertutik ezagutzen duten errealitateaz mintzatu eta etorkizunari begira jaritzeko.

**Zuek zerekin lotzen duzue prekarietatea? Zer datorkizue burura prekarietatea entzundakoan?**

**KATTALIN SAINTTE-MARIE.** Nik pertsonalki bizi dut segurtamenik gabeko egoera bezala, zure geroan segurtamenik ez izatea eta egoera eze-gonkor batean bizi beharra. Etengabe buruan izatea nola aitzinatuko zaren, nola pasako diren gauzak... Eta hori lotzen da lan ezari, baina baita ere lan baldintza jakin batzuei, eta horrek badu eragina etxearen gainean, harremanetan...

**ENDIKA PÉREZ GÓMEZ.** Egia da askotan prekarietateaz hitz egitean lan eremura bideratzen dugula gaia, baina kontuan hartu behar dugu segurtasun edo egonkortasun falta dakarrela, eta ez dela eremu bakarrera mugatzen, bizitzako esparru guztietan sartzan baitzaigu: etxebizitzan, harreman sozialetan... Azken finean, prekarietatea saldu nahi izan diguten ideal bat ez lortzearen ondorio da. Kontsumitzeko eta produzitzeko ideal burges bat eman digute, eta horra ezin aile-gatuak eragiten digun ezintasuna da.

**JOANES ROSÓ.** Prekarietatea bera, definizio bezala, konpondu beharreko zerbait da; eta egoera horri adarretatik helduz bilatuko diogu irtenbidea. Definizioz pobreziari lotutako kontzeptua da, baina orain dela urte batzuk arte egoera hori behin-behinekotzat hartzen zen,

garai berri batera salto egitekotan dabilen eta trantsizio egoera batean dagoenarena. Gaur egungo arazoa da prekarietatea orokortu eta egonkortu egin dela. Baina gazteok gaur prekarietateatik abiatuta, gure etorkizuna diseinatzeko aukera izan dezakegu.

**ONINTZE GOITIZ AURIA.** Kontuan hartu behar da prekarietatea ez dela berria. Historikoki askotan eman den egoera da. Botere falta da, eta aukeratzeko daukagun gaitasun eza da muineko arazoa; ez baitauekagu nola lan eta bizi nahi dugun erabakitzeke aukerarik. Horrek garamatza prekarietatera.

**Desberdin pairatzen al da prekarietatea jendarteko klase, genero, etnia desberdinetan?**

**E. P. G.** Prekarietatea pairatzen duena, esan bezala, bere produkzioa lan merkatuan saldu behar duena da, eta klase sozial jakin bati lotua dago, beraz. Baina horrek ez du esan nahi langile klase horren barruko sektore guztiei modu berean eragiten dienik. Emakumeen edo etorkinen kasuan, adibidez, areagotu egiten da egoera. Gazteriaren kasuan, egia da asko lotzen dela prekarietatearekin, baina eragiketean kontuan hartu behar dugu azken urteetan lortu nahian dabiltzan betiereko gazteriaren kontzeptua. Kontsumitzaille adin-tarte hori ahalik eta gehien luzatu nahi dute.

**K. S-M.** Bai, areagotzen da prekarietatea lehen ere egoera ezegonkorrak, segurtasunik eza edo zapalkuntza egoerak bizi dituzten pertsonengan; Endikak esan duen moduan, dela etorkinen edo dela emakumeen kasuan.

**O. G. A.** Ez dugu ahaztu behar prekarietatea guk onartzen dugula. Hau da, guk erabakitzen dugu



**Ezkerretik eskuinera, Onintze Goitz, Joanes Rosó, Endika Pérez eta Kattalin Sainte-Marie.**

prekarioa den eta ez denaren arteko muga non dagoen. Orokorrean jendartean hitz egiten denean “bah, lan hori prekarioa da”, gu ari gara etiketa jartzen; baina moldagarria izan daiteke etiketa hori eta baita muga bera ere. Nik soldatapeko lan guztia ikusten dut prekario, ez baitauekagure produkzioa erabakitzeke aukerarik.

Adinaren eta gaztetasuna luzatzearen ideiarri jarraituta, agian gaztetasuna kontzeptua bera sistema kapitalistaren asmakuntza bat gehiago da, markatutako adin tarte horretan sistemak berak finkatutako rola, kontsumoa eta abar erreproduzitzeko.

**E. P. G.** Nik ez dut uste gazteria bere osotasunean identitate kultural, sozial edo adin tarte bezala inposatu diezaguketen zerbait denik. Kez-

katzekoa da, hala ere, nola lortu duen sistemak hori guztia asimilatzea eta sistema bera birproduzitzeko elementu bilakatzea. Ikusi besterik ez daude gaztetasun perfektua lortu nahi badugu bete eta kontsumitu beharreko ezaugarri guztiak.

**J. R.** Ados nago Onintzerekin, zerekin konparatzen duzun, horren arabera izango da egoera bat prekarioa edo ez. Gu prest bagaude eta tresnak lortzen baditugu zertan eta nola lan egin nahi dugun erabakitzeke, neurgailua desberdina da. Daukazuarekin zoriontsu bazara ziur nago prekaritatearen marra beste leku batean egongo dela. Adinak baino gehiago zure bizitzako aldiak markatzen du desberdintasuna. Azkenean, prekaritatea bizitzeko modua ez da berdina 24 urterekin oraindik familia bateko ‘kume’ izanik edo seme-alabak izanda.

**Malgutasun laborala da asko entzun ohi den beste kontzeptu bat. Zenbat du abantailatik eta zenbat ezegonkortasunetik?**

**O. G. A.** Malgutasun hori da oraintxe sistemak behar duena. Sistema bat da, merkatua bat da, merkatu globala, eta gaur egun distantziak askoz ere txikiagoak dira, baina malgutasun horrek herritarroi eragiten digu.

**J. R.** Nik ez dakit malgutasuna edo mugikortasuna den. Baina galdera da ea guk nahi dugulako mugitzen garen edo behartuta gaudelako egiten dugun. Nik uste mugitzea bera aberastasuna dela eta pertsona bezala hazten laguntzen digula, baina nahi eta behar izatearen artean dago muga.

**E. P. G.** Mugikortasuna noski dela aberatsa, baina beti ere baldintza duin batzuk errespetatzen badira. Alde batetik bestera mugitzeak malgutasuna dakar berarekin, baina langilearentzako malgutasuna izan beharrean zapaltzen gaituztenei zuzendutako malgutasunaz ari zaizkigu.

**“Lana baldin badaukazu ez kexatu”, aditzen dugu.**

**K. S-M.** Gazteoi saldu digute maila altuko ikasketak burutu behar ditugula, ondoren master bat egin behar dugula, eta hori bukatutakoan eskuratu ahal izango dugula lana. Baina hori guztia eginda, eta nire egoera pertsonaletik ari naiz, burua itzuli eta ikusten dituzu zu bezalako gazteak, “formatuak”, lanik gabe edo han eta hemen

## M a h a i k i d e a k

### ■ ONINTZE GOITIZ AURIA



Bilbo, 1989. Etxebizitza, baratzea eta gaztetxea biltzen dituen Galdakaoko Ortuondoko partaidea.

### ■ KATTALIN SAINTE-MARIE



Landibarre, 1992. Euskaldun Gazteria taldeko kidea. Soziologian lizentziatua eta lurralde antolaketa ikasketak bukatzeaz.



lan txikiak egiten, ahal duten bezala bizitza ateratzen... Azken batean karioegi gara sistemarentzat, beraz, ez gaituzte hartzen, eta topatzen zara bost urteko goi mailako ikasketa batzuekin eta zorte pixka batekin astean ordu gutxi batzuetako lanarekin hilabete bukaerara ezin arribatuta. Noski, lan baldintzei erreparatu ere ez diegu egingo... Eta erraten duzuna, Onintze, erabaki baduzu ordu horiekin nahikoa duzula bizi ahal izateko bikain, baina bestela ez da posible.

**O. G. A.** Agian lanaz hitz egiten dugunean zehaztu behar dugu zer lan motaz ari garen. Uste dut soldatapeko lanaz ari garela eta horrek dakarren guztiaz. Lan mota horren kasuan, zuk ez daukazu zure lanaren jabetzarik, zuk ezin duzu erabaki nori

emango diozun zuk sortutakoa, eta mekanismo automatiko baten bitartez desagertuko da zure eskuetatik beste batzuetara joateko. Zentzu berean, zuk hortik jasotzen duzuna zu bakarrik erreproduzitzeko izango da. Sakonki aztertzeke gaia da, eta lan askearen ideia lantzen hasi beharra daukagu; kolektiboan nolako lanak egin ditzakegun, guretzako, eta gure harreman sareetan oinarrituta.

Egia da soldatapeko lanak badituela ezaugarri batzuk eta erabakitzeke eskubide gutxi edo batere ez diola uzten langileari. Baina egia, baita ere, orain arte bazirudiela soldatapeko lan horrekin ere nolabaiteko ongizatea lor zitekeela. Orain, ordea, badago jendea soldatapeko lan hori nahi eta ezin duena lortu, edo lortuta ere ongizate maila horre-

## ■ ENDIKA PÉREZ GÓMEZ



Larrabetzu, 1988. Lorezaintzako ikasketak eginda lan-gabezia dago. Ernai gazte antolakundearen sozio-ekonomia lan-taldeko kidea.

## ■ JOANES ROSÓ



Elgoibar, 1987. Ekintzailea. 2013an hamar gaztek sortutako TZBZ berrikuntza prozesuen aholkularitza-entrepresa kooperatiboko kidea.



tara iristen ez dena. Nahiz eta bi kasuetan erabakitzeko gaitasunik gabea izan, ez al dago hor salto bat langile klasetik prekariorantzara?

**O. G. A.** Agian askeagoa zara soldatapeko lanik izan gabe eta zure denbora eta esku-lana zeurea denean. Aipatu duzu badagoela jendea lan-mundutik kanpo geratzen ari dena eta soldatapeko lan hori bilatzen duena. “Zu zertan ari zara?” “Ez, ni orain ez naiz lanean ari, curriculum-ak bidaltzen ari naiz, ea lana ematen didaten”. Hori, tamalez, gaur egun gazte askoren errealitatea da. Zergatik ez ote dira beste zerbaitean ari? Gaur egun ez dagoelako alternatibarako politika askorik, edo baldin badago ez da ikusarazi nahi. Eta badirudi hobe dela “orain arte ondo bizi izan gara” nostalgia horretan geratzea, nik ‘ongizate’ hori zalantzan jartzen badut ere...

**K. S-M.** Ados, baina lana bilatzen ari diren gazte horiek beren gurasoek bizitako garai ‘on’ horien

koadroa dute buruan eta zaila da horrelako bizi-modua ezagutu duenarentzat ohartzea eta barnerratztea ‘krisi’ deitzen dioten hau ez dela iritsi bezala pasako den kontua. Egoera horren aurrean ito gabe, hasi beharra dago gauza berriak sortzen eta beste egonkortasun bat bilatzen, eta burutik kendu behar dugu lehengora itzultzearen ideia.

**E. P. G.** Soldatapeko lanaren ñabardurarekin bizi nator, baina galderara bideratuta, orain arte sistema kapitalistak saldu digun ideal burgesarekin programatu gaituzte ulertzeko hori dela benetako ongizatea, hor prekarietateak ez daukala lekurik, nahiz eta aro honen aurretik ere egon bazeagoen. Baina gaur sistemak ezin die berak saldutako behar horiei ere erantzun, eta egun gertatzen ari den fenomeno da langile pobreak daudela; enplegua izan bai, baina bizi-baldintza duin batzuetara iristen ez diren pertsonak: etxebizitza duin baterako eskubidea, elikadura, arro-



## Onintze Goitz Auria

**Niretzat garrantzitsua da gure esparru naturaletan, eta kontraesanekin lotuta, apurka-apurka pausoak ematea burujabetzarantz. Hau da, ikasketak gure egitea, etxebizitza gure egitea, eta zergatik ez, baita lana ere; lan askea izan dadila”**

pa... Beraz, egia da asko entzuten dela “lana baduzu ez kexatu”, baina uste dut lana daukate- nek ere badituztela arrazoiak protesta egiteko. Orain da garaia beste errealitate bat eraikitzen hasteko, eskema zaharrak erortzen ari baitira.

**Emantzipazioa, independentzia ekonomikoa, gurasoen habiatik ateratzea... Uste duzue immobilis- mora garamatzala gurasoen babesak, ala hori gabe ezingo genuke ezer egin?**

**K. S-M.** Noski izugarritzko babesak ematen digute- la gurasoek, eta beharrezkoa dugula, baina guraso- en etxetik atera nahi eta ezin duzunean... Segurta- men bat da, baina noiz arte luzatuko da hori? 30 urtetan? Momentu baten buruan, etxetik atera nahi duzularik, hasten zara buruari bueltak ematen eta aterabideak pentsatzen ez horrela segitzeko.

**O. G. A.** Emantzipatzearena ez al da apur bat kontzeptu burgesa? Niretzako familia eta harre- man afektiboak oso garrantzitsuak dira, eta plan- teatzea “kito, hemendik kanpo geldituko naiz, jada oso autonomia naiz, oso librea, oso askea”... Benetan uste dut garrantzitsua dela kontzeptua bera zalantzan jartzea. Gertukoekin harreman estua mantentzea garrantzitsua da, hor potentzial handia dago. Gizartean indibiduo solte asko gaude, bakoitza oso emantzipatua, ekonomikoki karga pila batekin; guretzako agian

egokiagoa da, ordea, ikuspegi iraultzaile batetik lazo horiei garrantzi gehiago ematea.

**K. S-M.** Bai, segun-eta nola definitzen duzun emantzipazioarena, baina ez du erran nahi fami- lia utzi eta zuk zure aldetik joan behar duzunik. Segur da familiaren balorea, zure inguruko lagun eta familiaren lotura beharrezkoa dela, baina emantzipazioak ez du erran nahi muga bat denik eta horiek gabe egin beharko duzunik. Eta gaur egun gehiago, gaztearen prekarietatean noski laguntzen duela, baina gero elkartasunarenak bizi guztian horrela segituko du, emantzipatu edo ez.

**J. R.** Burujabetza kolektiboa da, agian, mahai gainean jarri behar duguna, eta ez emantzipatzea gizarteko arauak hala agintzen dutelako: ni nire independentziarekin, ni nire karga ekonomiko guztiarekin. Azken finean, ni bakarrik ez naiz ezer. Badirudi krisi honi esker hasi garela berriz ere horrelako gauzei bi buelta ematen, alternatibak nola eraiki planteatzen, eskema berriak antola- tzen... Baina berriz diot: zerbait eraikitzekotan taldean beharko du izan.

**E. P. G.** Askok gustatzen zaidan hitza da emantzi- pazioa, baina ez dut ulertzen modu indibidual batean; gustuko dut, burujabetzaz edo buruaski- tasunaz ari delako. Ulertu daiteke era kolektibo- an, ordea. Emantzipazioa diogunean ez dut uste gure inguru estuenarekin dauzkagun lazoak apurtzeaz ari garenik. Bestalde, eta galderara itzuliz, tamalez gazte askok behar dugu etxeko- en koltxoia, batzuk eroso egongo garelako agian, eta beste batzuk ez dagoelako besterik; baina kontuan izan behar dugu prekarietateak geroz eta sektore zabalagoa hartzen duela, eta gure gurasoen koltxoia ere mehetzen edo husten joan daitekeela. Eta horren aurrean bi aukera dauzka- gu: edo modu indibidualean, gure lan-indarra - gazteok hori bakarrik baitaukagu eskaintzeko- saltzen dugu eta modan dagoen ekintzailetasun eta lehiakortasun marrazo guztien artean saia- tzen gara gure bizitza topatzen; edo lortzen dugu benetan hausnarketa kolektibo eta komunitario



batetik lan autogestionatuak mugitzen hasia. Badirudi hitzez esatea erraza dela eta gero egitea ezinezkoa, baina geroz eta eredu berri gehiago sortzen ari dira, eta horri erreparatu behar diogu, horretan jarri behar dugu indarra.

**J. R.** Ekintzaile hitzak euskaraz espainolezko *empresador* eta *activista* hartzen ditu bere baitan. Eta hori da azkenean euskaldunok egiten duguna, ezta? Arazo bat daukagunean gu mugitzen gara konponbidea emateko. Egia da askotan *empresador* hitza norbanakoaren arrakastarekin lotzen dela, baina ni natorren Arrasateko kooperatiben modelan behintzat, saiatzen gara taldeko ekin-

“ Joanes Rosó

Nire inguruan jende askok ez daki bere desirak nora bideratu eta jende asko topatzen dut atsekabetuta bere egoerari buelta eman nahian. Aurrera begira uste dut soluzio kooperatiboak direla gure irtenbiderik onena”

tzaitetza hori bultzatzen, zenbaitetan erosotasun pertsonal askori muzin egiten ekipoaren alde. Zailagoa izaten da normalean kolektiboan funtzionatzea, baina bakarrik azkarrago iritsiko bazara ere, komunitatean urrunago iritsiko gara, eta askoz ere egonkortasun maila altuagoa lortuko dugu.

**E. P. G.** Bai, baina Confedebako presidentea hasten bazaigu azaltzen ekonomikoki eta sozialki aurrera egiteko gazte ekintzaileak behar ditugula, normala da exzeptikoak izatea. Ados nago, hala ere, hitzak izan dezakeen bigarren buelta horrekin, ekintzaitetza bera beste ikuspegi batetik landu ahal da. Baina sistema arrakasta indibiduala eta lehiakortasuna bultzatzen ari da behin eta berriz, geroz eta eskaintza txikiagoa denean geroz eta maila akademiko eta laboral altuagoak exijituz, masterrak egitera ia behartuz, gero gainera gure herrian ez dagoenean horretara bideratutako lanposturik.

**Egungo egoera prekarioari, oro har, modu kolektiboan ari gara erantzuten, edo soluzio indibidualak bilatzen ditugula iruditzen zaizue?**

**K. S-M.** Norberak xerkatzen du prekarietatetik ahalik eta hoberen ateratzeko bidea. Baina badira beste alternatiba kolektibo batzuk, ez direnak behar beste entzuten. Trukaketa gehiago izan behar genuke inizatiba horiek beste leku batzuetan ere garatzeko.

**J. R.** Orain arte, norberak bere burua salbatzeko saiakera egin duela uste dut, baina oraintxe lurra ondua dugu ur pixka bat botaz gero uzta jaso ahal izateko. Nire inguruan jende askok ez daki bere desirak nora bideratu eta jende asko topatzen dut atsekabetuta bere egoerari buelta eman nahian. Aurrera begira uste dut soluzio kooperatiboak direla gure irtenbiderik onena.

**O. G. A.** Kolektiboa ezinbestekoa da bai, baka-rik ezin zaie aurre egin kapitalismoaren joerei. Gizarte honetan pertsona bakarrik ez da ezer, kolektiboaren babesa behar du talka horretarako. Alternatibak ere bide horretatik datoz. Guk Galdakaoko Ortuondo gaztetxean, adibidez, komunala kontzeptua erabiltzen dugu. Gure artean sortzen diren harreman afektiboetatik abiatzen da barne sistema produktibo komunal hori, eta ideia nagusia da, sistema kapitalistaren joerei aurre egitea. Beti merkantzia da produktua eta zuk lanarekin lortutako diruarekin erosten duzu. Horren aurrean, guk planteatzen duguna da ematearen logika: soberan duzuna eman eta elkarbanatu, trukean ezer espero gabe, taldearen eta zure inguruko onerako soilik.

**E. P. G.** Alternatibak badaude, eta kasu denetan oinarria da gure lan indarra merkatu kapitalistan saldu eta horrekin lehiatu beharrean, kolektiboki erantzutea gazte mugimenduan hain errotuta dagoen autogestioaren bidez. Merkatu eta kontsumo sare paralelo gero eta zabalagoak sortu behar dira. Hori da egoerari erantzuteko daukagun modurik onena.

Baina garrantzitsua iruditzen zait ez sinplekerian erortzea. Askotan badirudi gure errua dela halako proiektu kolektiboetan ez egotea. Badirudi ez badakigu nondik hasi edo halako proiektu bat abiatzeko gaitasunik ez badugu, sistema elikatzen dugula eta ez dugula kexatzeko eskubiderik. Uste hori irauli egin beharra dago. Gure bizitzaren gainean erabakitzen duten heinean, alternatibak sortzeko dugun aukera murrizta da. Sistemaren barruan gaude, eta hortik eraiki

behar dugu alternatiba. Ez da erraza. Horregatik, iruditzen zait hori presente izan behar dugula, ez jausteko idealismo antzuetan. Kontraesan asko izango ditugu, normala da, baina eraldaketa prosesua hortik abiatu beharko dugu.

**Hortaz, arrakaletatik abiatzea proposatzen duzu, pixkanaka gizarte ere eraldatzeko.**

**E. P. G.** Sistemari ahalik eta leku gehienetatik eraso egin behar zaio. Alternatibak eraikiz, esku-bideak defendatuz, sistematik kanpo dauden ereduak bultzatuz... baina denak norabide berean izan behar dute: pertsona eta herri bezala burujabe izateko bidean.

Ezin dugu ukatu bizi dugun errealitate objektiboa, baina horrek ez du esan nahi bere kontraesanekin bada ere alternatibak eraikitzeko gaitasunik ez daukagunik. Eta alternatiba sortzen ari ez garenok ere, eskubideak defendatuz eta kontsumo kritiko eta arduratsua eginez, alternatiba horiek aurrera egiteko behar dituzten baldintzak sortzen lagun dezakegu.

**J. R.** Alternatibak egon badaude, ez dugu gorpila asmatu behar. Transformazio sozialean jarduteko aldiz, tresna asko behar dira, lan asko egin behar da eta estrategia bat behar da horretarako. Nola ahaldundu gazteak bide horiei heltzeko?

Nik inguruan etsipena nabaritzen dut. “Ezin da, zaila dago...”. Txipa aldatu behar dugu, tresnak baditugulako. Behar duguna da itxaropena eta indarra lanean hasteko.

**O. G. A.** Niretzat garrantzitsua da gure esparru naturaletan, eta kontraesanekin lotuta, apurka-apurka pausoak ematea burujabetzarantz. Hau da, ikasketak gure egitea, etxebizitza gure egitea, eta zergatik ez, baita lana ere; lan askea izan dadila. Kontraesanei pixkanaka aurre egitea...

**K. S-M.** Gure mailako alternatibak egitea posible da, baina zaila da sistematik erabat kanpo egi-

tea. Zuberoan eta Behe Nafarroan badago elkar-tasun bidez gazteei euren enpresa sortzeko sos-tengu ekonomikoa emateko ekimen bat, dirua denborarekin itzultzeko aukera ematen duena. Alternatiba txiki bat da norberaren lan propioa sortzeko aukera eman eta prekariedade mota bat atzean uzten laguntzen duena, baina azkenean diruaren logikak agintzen du hor ere.

**Alternatiba ekonomikoaz hitz egin daiteke, beste espazio eta alorrak kontuan hartu gabe? Zer gerta-tzen da, adibidez, gaztetxeekin?**

**E. P. G.** Espazio askotan egin behar da borroka eta tira. Enpleguaren inguruko gogoetak ere egi-ten dira gaztetxeetan adibidez, hortaz, oso lotuta daude ekonomia alternatiboa eta beste alorreta-ko alternatibak. Adibidez, orain gutxi antolatu diren Herri Unibertsitateak ere indar handia dute, eta norabide berean egiten dute tira, kon-tzientzia garatzea ezinbestekoa baita alternatibek aurrera egin dezaten. Ekimen horiek guztiek komunean dute kolektibizazioa eta eraldaketara-ko grina, eta horiek, elkar laguntzen dute gainera.

**O. G. A.** Gaztetxeen eredia oso alternatiba potentea da, eta egia da orain arte aisiarekin oso lotuta egon dela, baina orain horri ere pixkanaka buelta ematen ari gara. Azken aldiko gaztetxe topaketetan nabari da orain arte aisialdia lan eta ikasketatik kanpo zegoen denbora bezala bizi beharrean, oro har norberaren denbora eta bizi-



Endika Pérez Gómez

**Alternatibak badaude, eta kasu denetan oinarria da gure lan indarra merkatu kapitalistan saldu eta horrekin lehiatu beharrean, kolektiboki erantzutea gazte mugimenduan hain errotuta dagoen autogestioaren bidez"**

bidea antolatzeko modua ari direla bilatzen gune hauetan ere. Gauza bera gertatzen da etxebizitza-rekin, okupazio dinamika ere gaztetxeetatik abia-tzen da hainbat kasutan, etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko bide bihurtzeko gero.

**E. P. G.** Gaur egungo gazte asanblada askok adi-bidez, ortu proiektua ere badute. Elikadura buru-jabetzaren kontua, esaterako, gero eta proiektu gehiagok barneratu dute. Hor prozesu bat abia-tzen da, eta apurka espazioak irabazten dira.

**Alternatiba ze mailataraino eraman behar da? Pix-kanaka hastea nahikoa da?**

**J. R.** Espazioak pixkanaka irabazi behar dira, jendea formatuz. Ulertu egin behar dugu kontsu-mitzen duguna nondik datorren, ze balioaren ara-bera landu den...

Tokiko garapenak esan nahi du hemen produ-zituz gero haren sortuko dugula lana. Ortu bat izatea ez da erraza, lan asko eskatzen du, eta horregatik planifikazio hori komunitate mailan egin behar da. Horretarako trantsizioan gaude, eta bidean badaude jada martxan jarri diren proiektuak. Logika horietatik bizitza proiektuak eraiki-tzea, hori da hurrengo pausoa. Azken urteetan aldatu da joera hori ere: orain arte esaten ziguten, lana lana da, eta hortik kanpo garatuko duzu zure bizitza pertsonala. Orain aldiz, uste dut kontura-tzen ari garela pertsona bera garela arlo pertsonal, laboral, familiar edo politikoan. Bizitza bakarra dugu, beti gara pertsona bera, eta maila guztietako harremanek eragiten dute gizartean eta ekono-mian. Espazio horiek guztiak ditugu irabazteko.

**O. G. A.** Ideologikoki ere lanketa handia egin behar da horretarako. Orain arte, eta kasu asko-tan oraindik ere, lana eskatzen genuen, soldata-peko lana ematea norbaitek, ia-ia mesedez eska-tuta. Nire lanetik beste batek dirua ateratzea. Pausoak apurka-apurka eman behar dira, asko hitz egin eta eztabaidatuz, praktika alternatiboekin bestelako errealitateak sortuz.



Kattalin Sainte-Marie

**Noski izugarrizko babesa ematen digutela gurasoek, eta beharrezkoa dugula, baina gurasoen etxetik atera nahi eta ezin duzunean... Segurtamen bat da, baina noiz arte luzatuko da hori? 30 urtetan?"**

**E. P. G.** Ez dago ahazterik ekoizpen bideen jabe ez garen artean, kapitalismoak ere baduela aparatu ideologiko oso bat bere eredia manten dadin. Alternatibak sortzen ditugunean, nahiz eta aldaketa sortu tokian tokiko dinamiketan, borroka ideologiko indartsua ere egin behar da. Alternatibak sortu behar dira, baina komunitate txikirako bakarrik balio beharrean, eraldaketako bokazioa izan behar dute. Herri bezala pentsatu eta lokalean ekin, hori da gakoa. Bestela gure komunitatean konpondu dugun arazoa ondoko komunitatean mantenduko da. Gainera, kontuan hartu behar da beharrak aginduta batek baino gehiagok ezin diola uko egin soldatapeko lan horri, eta pertsona horiek ezin ditugu eraldaketatik kanpoan utzi.

**O. G. A.** Gaitasun produktibo handia dugu, baina ez dugu bitartekorik. Guk saltzen dugun lan gaitasun hori ere badugu. Batzuetan badirudi beldur garela gure buruaren jabe izateko. Nahia-go dugula esatea, "egizu hau eta ogi apur bat emango dizut". Jaten ematen digunaren eskuari lotuta egon nahi dugula dirudi, etxabereak bezala, eta eskurik ez bada gosez hilko garela. Baina agian basabereak izan behar dugu, eta gure kabuz biziraupenerako elikagaiak bilatu, nork emango digun zain egon gabe.

**E. P. G.** Argi dago baietz, badaukagula indarra, eta iruditzen zait esperientzia horiek martxan jarri eta bidea egitea tokatuko zaion belaunaldia

garela. Baina batzuetan mutur batetik bestera joaten gara, eta oso diskurtso sinplistik ere badaude: "alternatibak eraiki behar dira, hori da bidea" eta beste dena alboratuta geratzen da. Alternatiba ez da soilik gu ondo bizitzeko, herri bezala sortzeko baizik. Horrek ez du esan nahi egitasmo guztiek nazionalak izan behar dutenik. Bide horri helduz gero, momentu batean ez dugu alternatibaz hitz egingo, egiteko modu hori hegemonikoa izango baita.

**Nahiko maila teorikoan ari gara orain arte, baina milaka gazteren eguneroko errealitatea da abiapuntua. Ikasketak amaitu berri dituen batek, adibidez, zein ate jo dezake, nola has dezake bere bidea...?**

**K. S-M.** Nik horretan ikusten dut kolektiboaren eta gizabanakoaren arteko muga. Iruditzen zait gazte gehienok gure bide propioa bilatuko dugula. Ikasketak bukatuko ditut laster eta lagunduko dit kolektiboak noski, lagunak, familiak... Baina maila indibidualean ziur asko beharko dut soldatapeko lana aurrera egiteko. Ene mailan segituko dut alternatibak xerkatzen, baina oraingoz behintzat iruditzen zait elkarte mailan lan egin arren, horrekin batera, sisteman bizi naizen neurrian jarraitu beharko dudala enplegu batean, dirua ere behar baitugu. Behar bada pesimista izango naiz baina...

**J. R.** Hor esparru ezberdinak daude. Indibidualki bakarrik ezingo badugu, ulertu behar da erakundeak erabili gabe ere oso zaila izango dela alternatiba horiek bideragarriak egitea. Bestela gure ekimenak martxan jartzen ditugu, baina erakundeek etengabe trabak jartzen dizkigute.

**K. S-M.** Ez da dena egun batetik bestera egingo. Baliteke aipatzen genituenak batzea bakarrean, soldatapeko lanarena eta alternatibarena. Baina denbora beharko da, eta nik hor ikusten dut zailtasuna. Hala ere, hori da gure erronka, guretzat ez bada ere, hurrengo belaunaldientzat horrela izan dadin. ■

Harpidetza bakoitzarekin,  
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

# mugarik ez

## Mugak sortzen dituen gastuak gure gain hartu ditugu

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margozen jarraitzea baitugu erronka.

**ARGIA astean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 12 euro baino ez\*

**ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:**  
hilean 7 euro baino gutxiago \*\*

**ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 4 euro baino gutxiago \*\*\*

\*ARGIA astero: 145 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.  
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

\*\* ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

\*\*\* ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**